

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

447

AGINDUA, 2014ko urtarrilaren 29koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2013ko azaroaren 26ko Agindua aldatzen duena. Agindu honek 2014-2016 epealdiri dagokionez, oinarrizko eta/edo aplikatutako ikerketa proiektuak egiteko laguntzak emateko deialdia egiten du.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariari buruzko abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuak, argitaratzeko honako hau jartzen du bere 18.2.c) artikuluan: bidalitako testuan dauden hutsak edo omisioak maila bereko xedapen baten bitartez zuzenduko dira, baldin eta nabarmenak ez badira, eta horiek zuzentzearen ondorioz, dokumentuaren edukia edo esanahia benetan edo itxuraz aldatzen bada.

2013ko abenduaren 11ko 235 zenbakidun Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen 2013ko azaroaren 26ko Aginduan, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarenean, horrelako hutsak daudela ikusienez, zuzendu egiten da:

7.1 artikuluan, 2013/5379 (31/4) orrialdean,

Honela dio:

«Eskabideak aurkezteko epea agindu hau EHAAan argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta 2014ko urtarrilaren 31ean amaituko da, egun hori barne dela».

Baina honela esan behar du:

«Eskabideak aurkezteko epea agindu hau EHAAan argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta 2014ko otsailaren 7an amaituko da, egun hori barne dela».

Vitoria-Gasteiz, 2014ko urtarrilaren 29a.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.